

dau (1); Dantzia berez pecatu izan ez-
arren, eguitendan moduban, naasteco
dantzia luxurijaren viztugarrija, ta be-
rogarrija dala; ta chito errazto ira-
goten dala pecatu izatera. Casuistaac
bere ez daveela au ucatu. Ez bada,
naasteco dantzaan pecatu eguiteco da-
guan ocasinoia gaiti, guxtiac eracut-
si daveela Eleisaco Santubaquin, dant-
zaac pecatu mortalecuac diriana. Aita
Baltasar francolinoc dino (2): Eguzqui-
jaren urten erati sartu eraraguinoco jaqui-
tun guxtiac condeneetan ditubeela naasteco
dantzaac Jaungoicuaren contraco pe-
catu anditzat. Dotrina au berau era-
custen davee, bacoachac bere lecu-
ban, ta bere sailari jagocan moduban:

(1) *Ibid.* (2) *Ibid.*

Natal Alexandro (1), Juan Pontas (2),
Lamet (3), Gerson (4), Salviano (5),
Juan Nider (6), Colet (7), Reiffest:
(8), Ferraris (9), Geneto (10), Mar-
chant (11), Comp. Salm. (12), El R.

(1) *Theol. Dom. Moral. t. 2. l. 4.*
de Decalog. c. 8. a. 2. Reg. 8. (2) *Dicc.*
casu. t. 3. v. Saltat. casu 2. (3) *Dicc.*
cas. t. 1. v. Choreæ. cas. unico. (4) *P.*
4. Dom. 3. adv. (5) *Ap. D. Carol.*
de choreis. (6) *In instrut. 76. Bened.*
XIV. (7) *Moral. trat. 6. præcept. c.*
6. Sect. 2. conclus. 3. (8) *Theol. Mo-*
ral. trat. 9. dist. 4. q. 7. n. 84. adic.
4. et 5. (9) *Bibliot. v. Choreæ.* (10)
Tom. 3. de santific. fest. c. 3. q. 4.
(11) *Hort. past. lib. 3. trat. 3. l. 10.*
(12) *Tom. 1. trat. 9. c. 6. punto. 2.*

93

P. Fr. Diego de Cadiz (13), Man-
 si (14) Pouget, (15), R. P. Fr.
 Francisco Antonio de Palacios (16),
 D. Juan Antonio de Moguel (17).....
 Empin esan daigun erabatera San
 Carlos Milango Obispo Jaunagaz (18);
neque vero hodie quisquam est paulo
prudentior, qui choreas non detestetur.
 Edo, esan daigun Benedicto XIV. (19):
 Eleisaco erregueleen, Santubeen, ta

(13) *Cart. Consult. N. impr. en San*
Sebastian año 1803. (14) *Bibliot.*
Pred. t. 1. trat. 9. disc. 5. (15) *Inst.*
Chat. t. 4. Part. 2. Sect. 1. c. 2.
§. 3. et lit. F. impr. Lovan. año 1774.
 (16) *Contra bailes. c. 3.* (17) *Iracaste.*
 10. (18) *De choreis. c. 17.* (19) *Ins-*
trut. 76.

Eracusleen dotriniari ichita, libertadia, ta nasaitasuna gura daveenac, verba eguiten daveela naasteco dantzeen pavorre. *Infelices Abogados del libertinage* esaten deutsee alacuai Benedicto XIV. Ezdago, Jaungoicuaren leguia eracusteco, uste onagaz pluma escuban artu davenic, ez *casuistic*, ez *Provabilistic*, celan eguiten dirian entzun ezquero, gueure placeetaco dantza naastaubac, pecatu mortalaren beeco ocasinioetzat emoten ezditubanic. ¿Baina cer eguingo davee guichiago, dotrinia daquijeenac, ta juicijua dauqueenac, berarjaz gentia engaineetara ezbaduaz, pecatu eraguiteco? ¿Ezdau Evangelijoco eracutsijaren errazoe aguirijac au esaten? Icusi daigun.

ERRAZOIA.

Errazoe au ezaututeco , ez daiguzan contuban sartu , gueure placeetaco dantzaac diriala medijo zucen , errijeetan , Copradijeetan , ta pamelijetan jagui oldirian ocasinoiac, burrucac , ta lutzatoco gorrotuac; vengueetaco atajadiaren zain urrengo pista egunera , edo erromedija egunera artian egotiac ; gurasuen , ta umeen arteco bidauac , baque chaarra , ta gaineco eguneetan alcarri verbaric eguin gura eza.... Ezdaigun contuban sartu , pista eguna , jaijeguna bada , egun guztia diabruba , munduba , ta araguija serbiduten iragotia ; Jaungoicuagaz bere ez acordeotia ; ta , verbeeta onian , mezatic

96

bere ez entzutia. Ezdaigun contuban sartu, piestia, ta dantzia dala medijo baseerri echeetan eguiten dirian castu alperticacuac, vanidadezcuac, ta neurri bagacuac. Baquidaz Vizcaijan, curac zinuenez, piesta egun bacochecho castuba eunducategaz eguiten ezdabeen baseerri echiac. Ta urte ascotan alan. Ezdaiguzan contuban sartu, plazaraco, ta piestaraco eguiten dirian lapurretac, ta andi ateraten dirian ordiquerijac, joco charrac, ta beste maldadiac. Alderatu daiguzan oneec guztioac buruti simplezatzat, ta chochaquerijatzat, errijetaco dantza egun guztietan, bat ichi bagaric, jazo arren.

Ta esan daigun: Castidadiaren contra diriala pecatu mortaleco ocasinoc utrecuac. Ezgaitezan aaztu, Erri one-

etaco placeetaco dantzac celan egui-
 ten dirian. Gogoratu daigun, ESCRI-
 tura Sagradubac, Eleisaco Santubac,
 ta Jaquitunac eurac gaiti dinuena.
 Iracurri daiguzan, Kleisiac condenau-
 ta daucazan, luxurijari su emoten
 deutseen, ta aren ocasinoiac parca-
 tuten ditubeen esanera galdubac, *Pro-*
posicinoe condenaubac. Alexandro VII.
 40, ta 41. Inozencio XI. 1, 51, 57,
 58, 60, 62, ta 63. Alexandro VIII.
 2..... Nasaitu daigun dotrina au, al-
 daigun guztia, dantza zaliai gusto emo-
 teco. Ta, Eracuslaric oneenac, ta
 gueijeenaac esan arren, vorondatez,
 ta ezauberaz izan ezquero, ezda-
 guala seigarren aguindu Santubaren
 contra, beste aguindu ascotan leguez,
 gauza guichiric, edo pecatu venia-
 lic. Imini daigun dudaan gauza au.

Ta esan daigun : Castidadiaren contra pensamentu , verba , gurari , edo eguitade loi bati pusca baten vijotzian ezauberaz , ta naiz lecu emon deutsanac , guichiia , ta ecer eza dala , berac uste izan arren , ezdavela jaquingo erijotzaco ordu artian , ala pecatu mortala , ala veniala eguin daven. Evangelijoco eracutsiti asco urten bagaric , Eracuslaric gueijeenac esango deutseela : *Pecatu mortala dala , alan castidadiaren contraco gauza loijari ezauberaz vijotzian lecu emotia.* Baina onei guztioi erabatera ichita , guazan gueure sailaren itura zucen zucen , ta esan daigun.

Cristinaubeen dotrinaan castidadiaren contraco pecatu mortala da , premina bagaric verba desonestubac esatia , gustoz barre eguinda entzu-

tia, oratute, edo tocamentu desones-
 tubac eguitia, inoc eguin daguijozan
 istia, escuca loijac eguitia, ta no-
 berari eguiten bestiai istia; endamas
 guizonezcuac emacumiai, ta emacu-
 miac guizonezcuai. Baita pecatu mor-
 tala da, alaco gauza loijac esateco,
 eguiteco, entzuteco, icusteco, era-
 soteco, ta eraguiteco ocasinoera, ta
 peligrura bere guraz vorondatez, ta
 ezauberaz premina bagaric juatia, ta
 alaco lecuban egotia bere.

Baita da eguija, plazaco piestara,
 ta dantzara duazanac, (guztiz itsu-
 bac, eta gorrac, edo umiac ezba-
 dira) ondo daquijeela bigarren juate
 aldico : juaten dirian guztian, edo
 piestaruiz, edo piestaan, edo piestia
 amaituta, edo, obeto esateco, le-
 leengoti azquenera luxuriia guztiaren

testigu izatera duazana. Ondo da-
 quijeela : Castidadiaren contraco pe-
 catu mortalac , verba loijac , eta za-
 tarrae ; escuca ezainac , eta desones-
 tubac ; gorputzaquin alcar jote lot-
 sarizcuac ; chanceetan venetan pe-
 catu eguiteco convit clarubac ; mo-
 suca ziquinac , ta errazoe indecen-
 tiac , ta itchusijac ; ondo daquijeela,
 dinot , bai guizonac , ta bai andraac,
 bai mutilac , ta bai nescaac , duazan
 guztian , luxurijaren sutegui , ta ats
 ziquin au guztiau , ta gueijago icu-
 sico daveena , entzungo daveena , ta
 sentiduco daveena. Ondo daquijeela,
 (beticua dalaco) eurai bere sarritan,
 edo gueijeenian , edo beti esan deut-
 seezana , ta eguin deutseezana pecatu
 zatar , loi areec guztia. Baita : ez
 guichitan , ez bada gueijeenian , ta

gueijeenac beti , curac bere esan ditubeela , ta eguin ditubeela loiquerija areec ; ta besteen esanagaz , ta eguinagaz barre eguinda alegrau diriala. Ezin inoc ucatu legui , dantza zaliac au ondo daquijeena.

Baita eguija da , guizonac , eta emacumiac , mutilac , ta nescaac eceren bere premina bagaric, ez cleituban , ez aciendaan , ez osasunian oneraric, edo provechuric ez dauqueela , eureen guraz , ta naiz , veguijai , belaarrijai , ta gorputzari gusto emotia gaiti, eureen burubac eracustia gaiti , ta esandan , saltsa ziquin pecatuzcuan ibiltia gaiti, duazala dantzara. Duazala , luxurijazco pecatu mortalac esaten dirian , entzuten dirian , penseetan dirian , icusten dirian , egulten dirian , ta eraguiten

dirian ocasinoe jaquinera. Ta, esanac, egninac, ta eraguina ontzat omoten ditubeen lecura, edo bidera.

¿Ta au onan izan ezquero, esango dau, Evangelijua sinuistuten davenec, edo Eleisa Ama Santiaren semec, alaco dantza galdubeetara bere guraz juatia, ezdala pecatu? ¿Iracurri dau inoc cristandadeco liburutan, alaco ocasinoe jaquinera premina bagaric bere naiz juatia, ezdala pecatu mortala? Esandaigun bada: Euscal errijetan, esandan moduban, ta jazo-ten dan moduban, plazaan tambolinagaz eguiten dirian naasteco dantzac, avemarijeetan tambolina ixildu arren, pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac diriala. Necesidade, ta premina bagaric, ondo daquijecla, jua-ten dirialaco, castidadiaren contraco

pecatu mortalac aguirijan beti eguiten dirian olgheetara, ta dantzara.

Esandaigun gueijago : Ez daucala compesorec Eleisaco dotriniaren erreguela, edo neurgarriric, ez Eracusleen esanic, alaco dantceetara duazanac, leen juana garbatu, ta osteraz ez juateco asmua artu artian, pecatubeetati ascatu, edo absolvidu leguizala, esaten deutsanic. Ezdago onaco eracutsiric Eleisa Ama Santaan. Ezin compesorec pecatubeetati librau legui, alan pecatu dan ocasinoc jaquinera, bere guraz doiana, ocasinolari isteco verbia emon artian.

Ara emen cerbait arguituta, asieraan imini neban amaija, edo *Conclusioia*. Plazaco dantzaac celan eguiten dirian esanagaz: Espiritu Santubari, ta Eleisiaren Gurasuai entzu-

nagaz: Ta gueure sinistuquizunen Eracuslac, ta Errazoiac eurac gaiti dinuenagaz. Bitati bat. Edo provau, dantza plazaco orreec, esandan moduban, eguiten ezdiriala: ta, Escritura Sagradubaren, Eleisaco Gurasuen, ta Eracusleen liburubetati ateradirian esanac, guzurrac diriala: ta; imini dan Errazoiac bere zati-jeetan uts uniac daucazala, ta ondo amaituten ezdavela. Edo autortu, ta compesau: esandirian dantzaac, pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac diriala; ta oni darraicona.

IV. CAPITULUBA.

*Erromedijen , Biguiren , ta Saraubeen
gainian.*

§. I. ¿Cer dirian Erromedijac?

§. II. ¿Cer dirian Biguiraac.

§. III. ¿Cer dirian Saraubac?

§. I.

¿Cer dirian Erromedijac?

Dantza zaleen urten erai , edo
argumentubai erantzutera orduco, pen-
sau dot, erabagui biar ditudala, cer
dirian Erromedijac , Biguiraac , ta
Saraubac. Oneen ondoric eranzungo

jacue erabatera guztien erraparubai.

Erromediya gaiti ezda emen beste gauzaric aituten; ez bada promesaren, Santubaren, edo Santiaren achequijagaz ervestera juanda, errico, ta ervesteco guizon, emacume naaste vidian, ta erromedijaco lecuban eguiten daveen piestia, ta dantzia. Erricuentzaco da piesta eguna, ta ervestecuentzaco Erromediya eguna. Erromediya batzuc eguiten dira Errijetaco Eleiseetara. Baina gueijeenac basoco, edo mendiren bateco Ermitara. Nic icentau bagaric, daqui gentiac ondo, onetarico Ermita asco da gozana Vizcajian, ta Provincijan. Taurrin Errijetati legua ascuan gentia juan oidana erromedijara piesta egunian. Ermiteetaco Erromedijac nos asi zirian, cegaiti asi zirian, ta da-

gozan tercijora celan etorri dirian, esat-
tia , sail luciagua da, ta orain palta-
ric eguiten ezdavena.

Esaten da bada: Tambolinagaz pies-
tia , ta naasteco dantzia eguitendan
erromedijara, dantzan naaste eguite-
ra , olgheetara , ta ibiltera juatia, i-
nocenteen bat ez bada, pecatu mortala
dala besteentzat. I. Plazaco dantceen
contra esan dirian errazoiac gaiti.
II. Erromedijeetaco piestaac vide lu-
ciagocuac dirialaco. Juan , edo etor-
ri , ta ascotan juan, ta etorri gavaz
eguiten dirialaco. III. Alaco errome-
dijeetaco dantceetara , ta piestara gen-
teric nasaijeena , ta galdubeena juan
oidalaco. IV. Guizonezcuac, ta ema-
cumiac naaste lotsa bagaric , escan-
daluba emoten daveela, videetan be-
re irago oidirialaco. Au gaiti , pla-

zaco dantza naastauba ocasinoe urrecua bada , esan dan leguez , erromedijeetacua deungaagua da. Inoc egingo baleu promesa ez jaquinian, erromediya egunian santuba, edo santia visiteetaco , uste dot, egun atan, esan dan moduco piesta , ta dantza nasaija an eguitia , asco dala , promesa beste egun bateraco isteeco, ocasinocera ez juatia gaiti. Erromedijara juanda, an ibilteco achequijatzat, eguin badau promesa , gazte ascoc, gurasuac engaineetaco , eguin olditubeen leguez , uste dot, ezdala promes valijocua , ta ezdaguala cobru emonquizunic. Ezda Santuba , edo Santia ondreetan alaco piesta , ta dantzeetan, ezbada diabruba (1). Ezda

(1) *Illm. Valero Cart. Past. mot.*

emen ecer esaten, erromedija eguna
 domeequia, edo jaiousua bada, egun
 à videetan, ta vertan guizon, ta
 emacume naaste dantzan chilibituen,
 pandereten, trompeen, edo nesqueen
 soinubagaz iragotia gaiti. Bada au,
 irugarren Aguindubaren contra be-
 rez pecatu mortala dana, edoceinec
 daqui, edo jaquin biar dau (1).

§. II.

¿Cer dirian Biguiraac?

Biguiraac dira beste olgueeta bat-

11. n. 105..... (1) *S. Anton. P. 4.*
Q. 11. a. 2. S. Carlos Borrom. de
Choreis c. 11. 12.

zuc baseerri echeetan mutilac, eta nes-
 caac gavaz eguiten ditubeenac. Ol-
 gueeta onecc guztiz dira ezainac, ta
 galdubac. Eguija da, ija eehe gui-
 chitan eguiten dira. Ta auzuac ondo
 derichuela, baten bere ez. Onetarico
 Biguiraac izaten dira Baseerrijeetan,
 edo ezpatetiaren, edo gorubetiaren,
 artozuritutiaren, edo gazteen apari-
 merijenda baten ondoric. Auzo era-
 co, ta urrinagoco nescaac, eta mu-
 tilac batuten dira Biguiria eguiten
 dan echera gavaz, ta naaste eguiten
 dayee lotsa bagaric, naidaveen guz-
 tia. Ez oida ezcaratceo suba baino
 beste arguiric, ta bera bere ez beti
 ixiota. Gente guztia dago, edo da-
 vil nastian. Batian campora urten,
 bestian barrura sartu. Bestian ezca-
 ratz baztar baten illunian; bestian

dantzan, edo pandanguan, edo beste
asmo chaarragoren bat eguiten. Bi-
guireetan eguiten dira gauza batzuc
ain loijac, eta desonestubac, eze,
turcubac eurac bere lotsatuco litza-
tequez, icusico balitubee.

Umia nintzanian, Biguira baten
edo bitan neuc icusi, ta entzun ni-
tuban ziquinquerijaac ez ezcaratz,
bazar baten, edo apartian isilic, ez-
bada oguetaz lagun asco nesca, ta
mutil egozan ezcaratz betian claru
guztien aurrian, ezin esan legui,
ce ezainac cirian. Ume condua nint-
zan, baina ondo daucat goguan, noc
cer esan evan, ta cer eguin evan,
ta celan guztia olgheetan cirian. Ez-
dira bada predicadoreen pulpitoco e-
sanagaz inocenteen vegijac arguituten;
ezbada ceubeen echeetaco verba, ta

eguite deungueequin. Biguiriaren dem-
poria da gava. Gavaz juan , gavaz
ibili, ta gavaz etorri. Emacume ez-
conduric inos bere ez , edo chito ne-
quez. Guizon ezconduric bere ez,
berdescaren batzuc ez bada. Mutilac,
eta nescaac dira , illuna baino beste
restiguric ez dauqueela , cein , baino,
cein nasaijago , to lotsa galducuago,
Biguiria eguiten daveenac. Biguiraan
eguiten dira olgueeta modu asco dant-
ziaz , ta pandanguaz ostian. Oñen
icenac ondo daquijeez baseerritarrac,
nic esan bagaric bere. Baina guztiac
dira desonestubac , ta chito ezainac.

Biguiria gaiti esaten da bada: I.
Bere echian Biguiria eguiten inori
isteen deutzanac , eguiten davela pe-
catu mortala, echian lecu emon deut-
seelaco, II. Besteñ pecatubac bere

echecho Burubaren conciencijara dua-
 zala. III. Biguiraan alan dantzan,
 pandanguan, ta asmo loiheetan da-
 biltzanac, eguiten daveela pecatu mor-
 tala. Ataraco gauzaac entzutecho, i-
 custeco, eguitecho.....ocasinoe agui-
 rian, ta jaquinian eureen guraz sar-
 tuten dirialaco. Ta ezda asco esatia:
 guedil nenguan lecuti artuta, dant-
 zara biguiraan eruan nindubeen, e-
 macume ascoc esan oidaveen leguez,
 eureen burubac garbituteco. Lotsa
 guichico mutil, edo guizon batec a-
 tera legui, colpez artuta, dantzara,
 edo pandangora biguiraan, bere le-
 cuban gueldi daguan emacumia, edo
 nescatillia. Baina, gura badau, laster
 librauco da naaste atati. Bada derri-
 gortian, ta berac nai ezdavela, ez
 dantzan, ta ez pandanguan eguingo

114

dau inoc agaz. Onaco achaquijsac ez-
 deutzaz inos sinistuten emacumiari,
 juicijua daucanac. Eurac naidaveela-
 co, dira eureen dantzac, ta peca-
 tubac. ¿Ce guichi eguingo leuqueen
 alaco nescaac dantzan.....Morroscó ba-
 tegaz ? ¿Cegaiti ? Morroscuagaz ol-
 gau guta ezdaveelaco. Nai ez balebee,
 bestec bere eraguingo ez leusquijue.

IV. Alan Biguiraco olgueeta desones-
 tuban daviltzanac, inoc absolvidu e-
 zin leguiz, eguinac garbatu, ta ez
 eguiteco asmua, edo proposituba artu
 artian. Ta ain guichi, bere echian bi-
 guiria eguiten davena.

Ezpatetara, gorubetara, edo beste
 gau biar batera juatia, ta an, esan-
 dan moduban, biguiraan ibiltia, gau-
 za bi dira. Bata emacume, ta nes-
 catilla ondrau ascoc eguiten davec,

bestia eguin bagaric. Ascoc auzo era-
co artu emonai cobru emoten deut-
see, biguiraco naaste loiric eureen e-
cheetan eguiten ichi bagaric; ta ino-
ren echera duazanian eguin bagaric.
Bestiac bere eguin leguijee, nai izan
ezquero.

§. III.

¿Saraubac cer dirian?

Sarauba, esatenda emen, dala, an-
di eche baten guizon, eta emacume
naaste gavaz eguiten daveen dantzia,
ta olgheetia, echeco, ta campoco,
eureetarico edocein barruban sartuten
diriala. Onetarico saraubac, eta Bi-
guirac alcarren lagunac dira. Biguirara

auzo eracuac duazan leguez; sarau-
 ra bere auzo eracuac duaz. Bigui-
 ria gavaz eguiten dan leguez, sa-
 rauba bere bai. Biguirara gaztiac
 duazan leguez gucijeennian; Saraura
 bere bai. Nequezarijeen sarauba da
 Biguiria. Ta andiquijeen Biguiria da
 Sarauba. Icenac mudeetan dira. Ol-
 gueetia, ta desonestidadia bijeetan
 davil airian. Ezdago Jaungoicuaren
 aurrian Donic, ez Doinaric, ez bada
 eguite onac, edo chaarrac. Baseerrico
 mutilac, eta nescaac eche baten sar-
 tuta, gavaz olgueeta loijectan ibil-
 tia pecatu bada; andi echeetaco Jau-
 nac, eta Seinorac, Zaldunac, eta
 Damaac gavian alcarregana batuta,
 dantza, ta olgueeta nasaijeetan naas-
 te ibiltia bere, pecatu da. Itanduco
 baleustee: & cein dirian chaarrago, Bi-

guiria , ala Sarauba ? Esango neu-
que : Biguiria zatarrago , ta itchusi-
jago ; Baina sarauba chaarrago , ta
gachsubago , edo malecijotsubago. Bi-
guiraan colpe baten emoten jacue ve-
guijai , ta belaarriai castidadiaren
contraco lotsaari andijagua: Baina sa-
rauban emoten jacue araguijari , ta
luxurijari su gorijagua. Bijeetan: bai
biguiraan , ta bai sarauban dauca lu-
xurijac mai presta janari ugarijagaz.
Baina sarauban obeto guisauba , ta
gozuagua. Ta au errazoe asco gaiti.

I. Satauco gentiaren jantzi ar-
matuba gaiti. Bada gente apainduba,
ta ondo baino obeto apainduba jua-
tenda andiquijeon Biguirara. Ezdinot
ecer , araco bularrac , idunac , ta be-
suac aguirijan , edo guztiz aguirijan
baino , araguijarenugarrijago , An-

118

diquijeen Biguirara daruezan andra,
 edo nesca loijac gaiti. Ezbada dinot,
 Caballero, edo Zaldun, Señora, edo
 Dama, dana dala, juaten dala, ondo
 apainduta Biguirara. II. Andiquijeen
 aziera biguna, ta leuna gaiti. III. Eu
 reen malecija aurreratuba, ta gache-
 raco jaquituriya goixtarra gaiti. IV.
 Eureen gorputz atseenac, ta guichi
 domaubac gaiti. V. Eureen Biguiree-
 taco musica, ta canta indecente, ta
 odolberozailiac gaiti, ceintzuc dirian
 luxurijaren azoguia, ta araguijaren
 sugarria. Saraubari darraicozan con-
 decinoe oneec, airian darabilee ol-
 gueeta galdu areetan luxurijaren su-
 ba, ta desonestidadia. Ta oraïndino
 gueijago, Tertulianoc dinuan leguez (1),

(1) *Apolog.* n. 16.

eurren Saraubetaco luxuriya inos oz-
 tu ezdaquijuen, neguban bere jant-
 zita euquiten ditubee Andiquijac eu-
 reen Biguira, edo Saraulecubac. Bada,
 baseerrijetaco Biguiraac badira pe-
 catu mortalecuac, esandirian errazo-
 iac gaiti. Andiecheetaco Saraubac ma-
 leciya gueijago, luxuriya sutsubago, ta
 pecatu gueijago dauqueenac, dira.
 Alan: pecatu mortala da, esandan
 leguez, Sarauba eguiteco, salia, edo
 echia gentiarì emotia. Pecatu morta-
 leraco vidia inori emoten jacolaco.
 Pecatu mortaleco ocasinoe urrecua da
 alaco saraucò dantza nastia, ta ol-
 gueeta indecentia. Baita, bere naiz
 alaco dantza naastan loijan ibiltia
 bere. Ta, eguina garbatuta, osteria
 ez eguiteco, asmua artu artian, ez
 Caballeruac, ez Seinoraac, ez Zal-

dunac, ez Damaac ezdagoz prest com-
peseetaco; ezin inoc absolvidu leguiz.
Iracurri bedi, erraza da ta, leen
izentau dan Aita Cadizen carta jui-
cijozcua. Noverac obeto ezbadahui,
an icusico dau: cer dirian Saraubac,
ta Saraudunac.

Emeti ateraten dan contuba, da,
plazaco naasteco, Erromedijetaco, Bi-
guireetaco, ta saraubeetaco, esan di-
rian, dantzai jarraitutia, pecatu mor-
tala, edo illgarrija dala. Onen erra-
zoia da, esan dirian olgueetaac, pe-
catu mortaleco ocasino urrecuac iza-
tia. Plazaco, erromedijaco, biguira-
co, ta sarauco dantzaan, guizon, ta
emacume naaste eguiten danian, beti
dagoz verba loijac, escuca desones-
tubac, eguitade torpiac, menio lot-
sarizunac, ta luxurijaren azalqueria e-

zainac. Onaco Eleisa Ama Santiac
 pecatu mortaltzat eracusita daucazan
 gauza desonestubac, edo castidadia-
 ren contracuac, esan, entzun, icusi,
 ta, edo noberari, edo albocuari, nai-
 davela, edo nai ezdavela, eguiten
 sentidu bagaric, ez da olgueeta im-
 pernucio areetati echian sartuten inor
 amafreiti irutan: Begaz Plazaco, er-
 romedijaco, biguiraco, ta Sarauco
 dantza naastaubac, castidadiaren con-
 traco pecatu mortala dirian gauza
 desonestubac, esateco, entzuteco, ta
 sentiduteco ocasinoe urrecuac dira.
 Pecatu mortalaren beian eragotzita
 dagozan castidadiaren contraco gau-
 zaac, esateco, edo eguiteco, edo
 entzuteco, edo eraguiteco ocasinoe
 urrecora bere guraz juatia, olguce-
 tia gaiti, ta gorputzari gusto emo-

tia gaiti beste premina , edo nece-
sidade andiren bat bagaric; beti da
pecatu mortala. Begaz esandan dant-
za lei , ta naastaubetara, premina an-
di bat bagaric euren gustoz olguee-
tia gaiti duazanac, eguiten davee pe-
catu mortala. Bitati bat. Edo esan:
noberaren naizco , ta vorondatezco
escuca , mosuca , oratute , ta verba
desonestubac mutil , ta nesca , zaar,
ta gazteen artian eguitia , edo egui-
ten istia, ezdala pecatu mortala. Edo
autortu ; icentau dirian olgueeta de-
sonestubeetara bere guraz premina ba-
garic juatia, pecatu mortala dala. Le-
leengua esaten ezda cristinauric azar-
tuten. Bada sinistu bigarrena. Ta eu-
qui plazaco , Erromedijaco , Biguira-
co , ta Sarauco dantza desonestu or-
reec pecatu mortaltzat , edo pecatu

mortaleco ocasinoe urrecotzat.

Esandan ibilteetara, olgueetia gaiti, gorputzari gusto emotia gaiti, duazanac, nai davee pecatuco ocasinoe urrecua: Pecatuco ocasinoe urrecua nai davenac, nai dau pecatuco peligruba: Pecatuco peligruba nai davenac, nai dau pecatuba: Pecatuba nai davenac, ez dauca pecatubaren gorrotoric, ez damuric: Pecatubaren gorrotoric, eta damuric ezdauca, na, inoc pecatuti absolvidu, edo librau ezin legui. Begaz esandan plazaco, erromedijaco, biguiraco, ta sarauco dantzeetara, ta olgueeta loijectara eureen gustoz, ibiltia gaiti, olgueetia gaiti, ta gorputzari gusto emotia gaiti, jaquinaz duazanac, leen juana garbatu, ta ostera ez juateco verbia emon artian, inoc pecatuti

ascatu , edo absolvidu ezin leguiz.

Zurtu , compesore jaunac , ta contu , ceubeen arimac , ta dantzarijeenac impernura eruan ezdaguizuzan. Errazoe oneç , ustedot , ezdauca uts uneric Evangelijo Santuco eracutsijan. Esan dot leen : *amarreti iru bidar* ezdiriala echian sartuten , pecatu mortala dan gauza ezainen bat irago bagaric , ene errazoia proveetaco , asco dalaco. Baina oidanez , ta izan leitequiane , (itsubac , ta gorrac ezbadira) juaten dirian baco-chian , ez bein , ta birritan , ezbada zortzi , edo amar bidar bere jazoten jacuez , esan dirian desonestidadiac , ta pecatubac. Ta au eurac autor davee , juicijo onera elduten dirianian , edo Jaungoicuac vijotzian icututen deutseenian , ondo compeseetaco.

Errazoe onen errespuestarie ezin topau izan dot nic, neure concien-
cijaren deijac ixilduteco, sarti gura
izan arren. Icusidot, eldunasan Eus-
cal errijeetan, ta ez guichitan, gogo
bat, nasaitasun bat, ta ezdaquit ce-
laco empeinu bat, esan dirian ol-
gueeta lotsarizcuetan, ta pecatuz-
cuetan, cristinaubac piesta eguneetan,
ta gauric gueijeenian ibilteco, ta da-
viltzala chito ezain. Neure estaduba-
ren cer eguin nausi-bategaz aaztu ba-
garic, ezin apartau izan nas, compe-
sinoe asco entzuteti. Emen zan nire
lana, ta conciencia isildu ezina. Nai
neuquian, ta ascotan, (ta dinot ceruba-
ren aurrian) dantza-zaliac absolvidutia,
ostera ez eguiteco verbia escatu, edo
emon eraguin bagaric. Asi nintzan,
dantza zaliac examineetan, baita E-

126

leisiaren Eracuslaac, dantceen gainian cer dinuen iracurten bere. Ta ceinbat gueijago iracurrijago, ta ceinbat gueijago esaminaubago condecinoe, ta edade guztietaco persona dantzazaliac; aibat topau dot ezainago, itchusijago, ta desonestubago dala, liburubac esaten daveena baino, naasteco dantzetan eguiten dana. Sinistuten dot, olgueeta madaricatu orreequin daucala satanasac itsututa Euscalerrijetaco genteric gueijeena. Sinistuten dot, Erri oneetan condeneetan dirianeetati, gueijeenaac condeneetan diriala, olgueeta pecatuzco orreec diriala medijo.

Cerbait gaiti eracutsi even Alexandro Alex, jaquitun andijac, ta Guilermo Rodonacuac, (ta dacar-

reez San Carlos Milanguac (1), La-
metec (2), ta beste ascoc) -batac e-
macumia, ta bestiac guizonezcua e-
xemplutzat artuta, dotrina bat, dant-
za zale gustiac goguan euqui dai-
queena, eureen arimai ondo gura
badentsee. Itandu jacuen jaquitun an-
di arei: ¿ia emacume bat, edo gui-
zonezco bat goguz contrara, juan
baino, ez juan naijago leuquiala, gu-
rasuac, edo errespetozco personaren
batec erregututen deutsalaco, nos, edo
noscoren baten, banacaren baten
naasteco dantzara juaten danac, ta
dantzaan aibat onestidaderic oneena-

(1) *Opusc. de Choreis* c. 16. (2) *Dicc.*
u. Chor. cas. unico.

gaz davilenac, eguiten daven pecatu mortala, ala veniala? Au itandu jacuen jaquitun Andi arei. Ta erantzun eveen: Ez ziriala eurac azartuten erabaguiten, ez pecatu mortala eguiten eueela: ta ezda eguiten ez eueela bere. Descuidoco baten baino ezdalaco, dantziari gorroto deutsalata goguz contrara dalaco, ta aimbat moduric oneenagaz ibili dalaco, esan legui, dinuec, ezdavela pecatu mortalic eguin alan naasteco dantzara juan dan guizonac, edo emacumiac. *Baina besteequin naasteco dantzaan sartu dalaco, ocasinsian bere buruba imini davelaco, besteen dantzia bera sartubagaz ontzat emondavelaco, ta bera dala medijo, bestiac pecatu eguin euecelaco, ez dot pecatu mortaleti libreetan alaco emacumia, dino Alexandre*

Alexec. Ta ezda guizona bere, dino
Guillermo Rodonacuac.

Nequezco baten, edo nosic beinaco descuidoren baten (*raro*) goguaz contrara edocein naasteco dantzatan sartuta, aibat moduric oneenagaz ibilidan guizona, nai emacumia, libreetan ezbadavee pecatu mortaleti, Icentau dirian Eracusla pamaubac, ta beste ascoc: ¿Celan librauco ditubee, plazaco, erromedijaco, biguiraco, ta sarauco dantza desonestura eureen guraz, poz arren armatuta, aguineetati ura darijuela, duazan guizonac, eta emacumiac? ¿Mutilac, eta Nescaac? Ecelan bere ez. Inundi bere ez. Inoc bere ez. Dantza areec, ta olgueeta areec cer dirian daquijanec, inos bere ez.

Ezda naasteco dantza areetan pe-

130

catu bat bacarric eguiten. Ezbada ascò
 escandaluco malecijagaz. Erijotzaco
 ordu artian ezdozu jaquingo, zu i-
 bili zarian dantza, ta piesta orreetan,
 zu zariala medijo, bestiac, ceimbat
 pecatu mortal eguin ditubeen, zuc
 igarri ez arren, ta aintzat euqui ez
 arren. ¿Cer desiau dozu ceuc? ¿Cer
 pensau dozu? ¿Cer amau dozu? ¿Ce-
 gaz vijotza poztuta, barre eguinda,
 gozatu dozu? ¿Cer consentidu dozu,
 ta eguindozu sarritan dantza, ta ol-
 gueeta galdu orreetan, bestiai ent-
 zunda, ta icusita? ¿Esan deutseezu
 bestiai, ceimbat pensamentu, gurari,
 ta desio pecatuzcori lecu emon deut-
 sazun vijotzian, inoren eguinac icu-
 sita, ta esanac entzunda? ¿Contee-
 tan deutzazuz inori, dantza orreetan,
 biguira orreetan, Sarau orreetan.....

eraguin deusubeezan pecatubac? Bada
 zu zariala medijo, bestiac eguin di-
 tubeenac bere, zuc ezdituzu jaquingo
 erijotzaco ordu artian. Orduban bai.
 Orduban jaquingo dozu, ciembat pe-
 catu, ta ceintzuc eguin citubeen pies-
 ta, erromedija, biguira, ta sarau or-
 reetan, zuri icusita, zuri entzunda,
 zuc ataraco vidia, ta escandaluba e-
 monda. Orduban, erijotza erremedijo
 bagacuan jaquingo dozu, ceimbat a-
 rima diabrubaren sareperatu dituzun
 ceure dantza loiheetaco ibiltiagaz. Au-
 da, zuc dantzara juanda, emondo-
 zun escandaluba. Onan galdu dituzu
 laguneen arimac. Au daquizula juan
 zara. Premina bagaric juan zara. Ol-
 gueetia gaiti, ta ceure gorputzati
 gusto emotia gaiti, juan zara. Bada
 besteen pecatubetan bere parte za-

ra. Au gaiti beste bagaric, dino San Carlos, Milango Obispo Juanac (1) Santo Tomas, ta beste Eracuslaquin, pecatu mortala eguiten daveela, alaco dantceetara duazanac. Esan daigun bada ostera bere Santu Andijagaz beragaz: *Exgaizala inoc euqui estutzat, olgueeta madaricatu orreec pecatu mortalecotzat condeneetan ditugunian.* edo Benedicto XIV: *Pecatu-ba, libertadia, ta nasaitasuna nai daveen desdichaubac verba eguiten daveela, naasteco dantceen pavore.* Ta icusi daigun, ce indar dauqueen dantza zaleen urteneraac, edo argumetubac.

(1) *Ubi supra* c. 7.

V. CAPITULUBA.

*Dantceen pavoreco errazoiac, ta
erantzunac.*

§. I. Dantzaac ain deungaac balira, quendu eguingo litzaatequez.

§. II. Santo Tomasec dino: Dantzan eguitia ezdala pecatu.

§. III. San Francisco Salesec Philoteari ez eutsan guztiz eragotzi dantzan eguitia.

§. IV. Abadiac, ta Prailiac bere juaten dira piesteetara, ta Saraubetan dantzan bere eguiten davee butzuc. Ain chaarrac balira, ez leuquee eguingo.

§. V. Piestetara, ta dantceetara juan arren, ez dot nic pecaturic eguiten.

134

§. VI. Dantceetan ez, ecc Eleisaan
bere pecatu eguin legui, nai dave-
nac. Ara bere ez juan.

§. VII. Gaztiac cetan, edo atan
olgau biar davee.

§. VIII. Obada alcarregaz plazaan,
edo biguiraan, edo Sarauban olguce-
tia, ezcutebeetan gauza chaarraguac
eguitia baino.

§. I.

*Dantzaac ain deungaac balira, quen-
du eguingo litzatequez.*

Ezda heregeric aguertu mundura,
eguijaren coloriagaz bere guzurrac
jantzita, inocente ez jaquin asco
engaineetaco, asmua artu ez dave-

nic. Beste aibeste jazoten da cris-
 tinaubeen arteco ecandu pecatuzco,
 ta oitura galdu ascogaz. Ta au be-
 rau, orain aita dogun sailaren gai-
 nian. Asco dagoz munduban, dant-
 ceetaco nasaitasuna, libertadia, ta lu-
 xurija zaitu, ta jaso gura daveenac,
 diabrubeen irabatziya guichitu ez de-
 din. Au jadijsteco, guzurrai emoten
 deutsee eguijaren coloria. Burla egui-
 ten deutsee pulpitoco Evengelijoco
 esanai. Trateetan ditubee simpletzat
 Compesoreric eldubeenac, ta erra-
 zoezcuenac. Conteetan ditubee cho-
 chaquerijazat pecatu mortal aguirijac.
 Pinteetan ditubee milla guzur, ta
 ipoin naastaugaz, Santubac, ta Santaac
 icentauta, castidadia aaztu eraguiten da-
 veen, ta pecatuz josita dagotzan, olgueeta
 zorigaistocuac, biarrecuac, inocentiac,

136

ta onac balira leguez. Ta engainee-
tan davee, oneraco baino, gacheraco
prestaago daguan, gente guichi jaquin
guztia condeneetaco bidera. Onec
badira Peluca dunac, edo Coroe
dunac. ¡Oh! Ce predicatoriac dia-
brubarentzat. Ezdira eureen sermoiac
irabatzi guichigaz gueratuco. Ara e-
men aitatuta, ecandu, ta oitura gal-
du asco beti oinian euquiteco sus-
traija. *Qui habet aures audiendi, audiat.*
Emen imini ditudan, ta esaminau
gura ditudan dantza zaleen argumen-
tubac, neuri ascotan, ta chito sarri-
tan guizonac, eta emacumiac, zaarrac,
eta gaztiac, ta areetati asco, salbee-
taco duina dotrina ezdaquijenac, com-
pesonarijuan iminijac dira. Oneetati
leleengo argumentuba, edo urten eria-
da, esatia;

Dantzaac ain deungaac balira,
quendu eguingo lituqueez guztiz: Ez-
dira guztiz quenduten: Begaz ezdira
deungaac, edo pecatuzcuac.

Esandan baisen pecatuzcuac izan
arren, ez dira quenduten. Ta echu-
ria daucanez, guztiz quenduco bere
ezdira.

Au obeto aituteco, gogoratu biar-
dogu naasteco dantceen asi erla, ta
celan cristinau errijeetara etorri zi-
rian. San Ciprianoc (1), ta San Isi-
doroc (2) esaten davec: Guizonac, eta
emacumiac engaineetaco, bere sarian
sartuteco, ta impernura eruateco, de-

(1) *In Epist. ad Donat.* (2) *Ori-
gin. l. 18. cap. 50.*

138

moninuac asmau citubala dantzaac. San Ambrosioc dino (1): Munduco jaquitu-
 nen erichijan ordiquerijac, ta zoraque-
 rijac ecarri ditubala dantzaac. Beste batzuc (2) seinalleetan deutsee dant-
 zai erne lecuba. Ta esaten davec: Da-
 nen tribu, edo Castati datozala dant-
 zaac. Oneec dinue: Danen castucucac
 ziriala, araco, urragorritzco idiscua
 emacumeen cirzilubaquin eguinda, Is-
 rraeltarraí mendijan Jaungoictzat ado-
 rau eraguin eutseenac; ta Jaungoico
 eguijazcua ucatuta, dantzan eraguin
 eutseenac. Dan gaiti Espiritu Santu-
 bac esanda, dauca: Suguia leguez,

(1) *Lib. 3. de Virg.* (4) *Marchant.*
Ort. Past. l. 3. Trat. 3. Lect. 10.

edo sierpia leguez izango dala bere
 castia. *Fiat Dan, sicut colober in via,*
et sicut cerastes in semita. Danen casta
 galdubari ezarri eutsan Jaungoicuac
 maldecinoia : Suguiac leguez, edo sier-
 piac leguez, pausu eguiteco, ta ibil-
 teco. Bada munduben bada guiza cas-
 taric, suguia leguez davilenic, dant-
 zaarijac dira. Dantzaarijac daviltz, su-
 guia leguez, edo sierpia leguez, gi-
 raca, ta oquerca, buru zitala (Aur-
 escuduna) an sartu, ta emen atera,
 batian ezcutau, ta bestian aguertu,
 ain laster onduan, cein guerrijan da-
 ravilela. Dantziaren giraac bere guz-
 tiac dira ezquerreraacuac, ceindan,
 pausu eguiteco, ta ibilteco, alde
 madaricatuba Escritura Sagraduban.
 Danen casta gaistoti datorrelaco, e-
 moten jaco dantziari oneetaco ver-

140

beeta ascotan bere erico icena. Bada Eusqueeraz , Erdeeraz , Prances, Italiano , Teutonico, ta beste ascotan; dinueenez , *dantzia* , *dantza* , *danse* , *danter*..... esaten jaco olgueeta indecente ari. Nai dala Danen casta gal-duba , nai dala demoninua, nai dala ordiquerija , nai dala zoraquerija, dantzaac asmau ditubana, Guraso ondraubac dagqueez dantzarijac.

¿Baina celan etorri dira cristinau errijeetara dantza madaricatu orreec? ¿Celan? Etorri cirian bada Gentileetati cristinaubeetara. Ta guero gurasuetati umeetara. Gauza jaquina da, gentilac edocein izate artuten eveena Jaungoicotzat. Ta emoten eutseezan Jaungoico paltsuai eureen icenac. Jaungoico paltso areec ondreetaco, eguiten zitubcen eureen egunetan piestaac,